

Pagotxen Azoka hazi egin da

■ Larunbat eta igandean aukerako hainbat produktu eskura izan ziren Stock eta Saldoen II. Factory Azokan ■ Aurten bi egunetara luzatu da egitaraua.



Unai Lasarte:
"Arraunean hasten bazara harrapatu egiten zaitu, drogaren gisakoa da" 4/5

KIROLA /2

Asteburu honetan bukatu da hipodromoan zaldi lasterketen denboraldia

ALBISTEA /3

Aparkalekua ireki da Osasun Zentroaren zoru azpian

ALBISTEA /6

Euskara ikasteko diru-laguntza emango die herritarrei Udalak

Herritar ugari hainbat produktu modu onean erosteko aukera izan du larunbat eta igandean Michelingo pilotalekuan zabalik izan den Lasarte-Oriako Stock eta Saldoen Factory II. Azokan.

Herriko eta inguruko hainbat merkatarik hogeitau postu inguru jarri zituzten besteak beste arropa, oinetakoak, osagarriak, bitxiak, irudi eta soinuarekin lotutako produktuak saltzeko.

laz feriak izan zuen arrakasta eta harrera onak bultzatuta aurten luzatu egin da Factory Azoka eta asteburu osoan izan da zabalik egun osoz, larunbatean eta igandean 10:00etatik 20:00etara bitartean etenik gabe. Larunbat goizean jende gutxi ibili zen baina arratsalderako herritarrek animatu eta jendearen joan etorria ugaria izan zen Aterpea Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udaltzainguko Departamentuak Michelinen antolatutako azokan. Leku aldaketak ere harrera ona izan du antolatzaile eta herritarren artean.

Haurrentzako txokoak

Gainera aukerako produktu, saldo eta pagotxak lasai begiratu ahal izateko, haur txikiak hainbat jarduerara ere antolatu ziren, ludoteka, koltxonetak, trizikloak, bolazko igerilekua eta tailer ezberdinak. 7 urtetik gorako haurrek ere izan zuten kamisetak eta txapal erakusten zuten tailerretan eta karaokean gozatzeko modua. Bitartean euren gurasoek erosketak lasai egiteko aukera ezin hobea izan zuten.



Aurten ere herritar ugari inguratu dira azokara. Feriako berrikuntzetako bat, haurren txokoa izan da, karaoke eta guzti.

Tabernatxo bat ere jarri zuten, eztarria busti edo atsedena hartu nahi zutenentzat.

Feriara sartzeko txartelak euro bat basterik ez zuen balio, euro baten truke hainbat ganga erosteko aukera izan zuten Michelingo pilotalekura hurbildu zirenek.

Zozketa

Gainera sarrerekin zozketa egin zuten igande iluntzean. Lau sarrera bikoitza zozketatu ziren Orioko Balea Bainuetxean "Relax gastronomiko" tratamenduz gozatu ahal izateko. Erredakzioa itxi aurretik ezin izan genuen irabazlearen izenak eskuratu, ostiraleko zenbakian emango dugu horren berri. •



muntteri
euskaltegia **aek**

Matrikulatzeko epea irailaren 1etik aurrera

- Euskara agiriak
- Hizkuntza perfilak (1-2-3)
- EGA
- Euskalduntzeko maila guztiak

Geltoki kalea 17, behea
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 372863
lasarte@aeknet.net

ikasi euskara
eman izena **aek-n**
Azterketa ofizialak eta titululu homologatuak www.aek.org

Batzuetan, biderik laburrena da onena

aek
...garena ikasteko!

ESKOLA KIROLA

Eskolaz kanpoko kirol eskaintza zabala

Landaberi eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko haurrek ikasturtea hastear dute, baina ikasteaz gain ongi pasatzeko aukera ere badute eskolaz kanpoko jardueri esker eta hauekiko bat dugu *Eskola Kirola*.

Taldekako, zein bakarkako kirolaz gozatzeko aukera aparta da, saskibaloia, futbola, tenisa, atletismoa... Eta aurten berrikuntza bezala benjamin mailatik aurrera bakarkako kirolatan txirindularitza eta taldeko kirolatan errugbia.

Kirol eskaintza

Honela, aurrebenjaminen kirol hastapena egingo dute urritik aurrera.

Benjaminen talde kirola eta bakarkakoa dute. Taldekakoa gainera multikirola da, hau da, hiruhileko bakoitzean kirol bat egin dute, futbola, saskibaloia edo errugbia.

Alebinen mailan, taldekoan futbol edo saskibaloian jokatuzeko aukera dute eta banakakoan nahi duten kirolean.

Eta infantilek eta kadeteek kirol bakarra aukeratu behar dute.

Eta honetaz guztiaz gain, alebin mailatik aurrera mendi irteeratan parte hartzeko aukera izango dute guztiek.

Oharra eta izena ematea

Honela, ekainean izena eman zutenei ikasturte hasieran entrenamendu egunak zehazten dituen ohar bat banatuko zaiela jakin arazi du *Eskola Kirolako* arduradunak.

Bestalde, matrikulatu ez zirenek izena emateko aukera berria dutela jakin arazi digu, irailaren 18 ostiralera arte. •

Kirolerako oharrak

Entrenamendu hasiera

LOKEko judo sailak gaur emango die hasiera entrenamenduei. 7 eta 10 urte arteko gaztetxoek astelehen eta ostiralean izango dute saioa 18:30etatik 19:30etara eta handiek, berriz, hiru egun dituzte, astelehen eta ostiralean 19:30etatik 20:30etara eta asteazkenetan, 18:30etatik 20:30etara.

Ostadarreko Futbol Eskola

Ostadar K.Fk jakin arazten du, Futbol Eskolan izena eman duten jokalariek elkarteko bulegora, Geltoki kalea 25. zenbakira gerturatu behar direla dokumentazioaren bila.

Zaldi denboraldia bukatu da

■ Lasterketa ikusgarriez gozatzeko aukera izan dute aurten zaldien zaletuek

TXINTXARRI

Donostiako Hipodromoko zaldi denboraldia asteburu honetan bukatu da. Uztailak 12tik irailak 5era arte 72 lasterketa ikusteko aukera izan dute zaldi lasterketen zaletuek.

Ikusle ugari egon da denboraldi osoan, Urrezko kopa egunean batez ere, eta horietako asko Lasarte-Oriako zaletuak izan dira noski.

Jardunaldi interesgarriak eta lasterketa biziak ikusteko aukera egon da aurten. Probatan ongi kokatua egotea eta barrutik joatea erabakiorra izan da.

Honela, lasterketa ugaritan azken metroak garrantzitsuak izan dira eta bat baino gehiagotan argazkiak erabaki du garailea nor zen.

Sari nagusiak

Aste nagusiko egunetan egon zuten ikusmira eta ikuskizunik handiena.

Esate baterako, abuztuaren 9an, *Kutxa* sarian, lasterketa ikusgarria egin zuen *You or no one* behorak eta hamabi zaldiko tartea atera zion bigarrenari.

41. *Urrezko kopa* proban, abuztuaren 15ean, lasterketa



Roman Martin prestatzaileari merezitako omenaldia egin zioten Hipodromoan azken jardunaldian.

interesgarria ikusi zen. Azkeneko zuzenean *Young Tiger* zaldiak eta bere jockeyak guztiak garaitu eta hiru zaldiko tartearekin iritsi ziren helmugara. Lehenengo aldia zen 8 urteko zaldi batek sari hau eskuratzen zuena.

Bestalde, abuztuak 23ko jardunaldian, *Aranel* zaldiak Estatuko azkarrenaren tituloa eskuratu zuen Eusko Jaurlaritza saria irabazterakoan. Eta,

honek ere, azken metroetan lortu zuen garaipena.

Eta, azkenik, abuztuaren 30ko Nazioarteko Kriteriumean azken 200 metroetan erabaki zen. Azkenean, Aratan zaldiak buru bateko distantziaz Krilin menderatu zuen.

Romani omenaldia

Larunbatean, Donostiako Sari Nagusia jardunaldian Real Sociedad Futbol taldearen

mendeurrena ospatu zuten Hipodromoan.

5. lasterketan eman zen Donostiako Sari Nagusia, eta sari-banaketaren ondoren azken hamabi urtetan Lasarte-Orian bizi den Roman Martin prestatzaileari omenaldi beroa egin zioten. Hipodromoan bertan eta honen alde eginiko lana eskertu nahi izan zioten antolatzaileek omenaldiarekin. •

Tourreko porrako sariak banatu dira

■ Areto-futbol XXVII. txapelketarako taldeen izen-ematea ireki da

Lehenengo ostiralean Ostadar K.F.-k antolatutako Tourreko porraren saribanaketa egin zen *Ainhua* tabernan.

Zabalo eta *Hodei ta Unax* porrako irabazleek gain, urdaiazpikoa lortu zuten zori-nekoak eta etapako zozketako irabazleak ere bertan egon ziren bere saria jasotzeko.

Norbanakoen sariaz gain, puntu gehien eskuratu duen tabernaren saria ere banatu zen. Aurtengoan *Ainhua* taberna izan da puntu gehien eskuratu duena, eta bertako nagusiak, Eduk jaso zuen saria, bi pertsonentzako afaria Urgul Jatetxean.

Areto-futbol txapelketa

Bestalde, Ostadarrek antolatu duen areto-futboleko XXVII. txapelketa herrikoian jokatzeko taldeen izena ematea ireki zen abuztuaren bukaeran.

Antolatzaileek jakitera

eman dutenez, talde kopurua mugatua izango da, 24 taldek parte hartuko baitute txapelketan. Era berean, aurreko urteetan parte hartu duten tal-

deek lehentasuna dutela ere azpimarratu dute.

Txapelketan parte hartzeko asmoa duten taldeek irailaren 18ra arte dute kirol

elkarteren egoitzara hurbildu, Geltoki kalea 25. zenbakia, eta izena emateko eta ordutegia arratsaldeko 18:30etik 20:00etara da. •



Ainhua tabernan banatu ziren aurtengo Tourreko porrako sariak.



Osasun zentro berriko errotazioko aparkalekua martxan dago. Bertan 40 autorentzat lekua dago eta igarotako minutuen arabera ordaindu behar da.

Osasun zentro berriko aparkalekua martxan da dagoeneko

■ Legazpiko Udalak erabiltzen duen tarifa sistema ezarri da parkingean

Lasarte-Orian aparkalekua aurkitzea gero eta zailagoa da, arazo hau arintzeko Udalak errotazioko lehen aparkalekua martxan jarri du dagoeneko.

Osasun zentro berriaren azpian kokatzen den parkingak 40 aparleku ditu eta horietako bat mugikortasun urriko pertsonentzat da.

Aparkalekua 24 orduetan irekia egongo da eta tarifak minutuen arabera ezarri dira,

Legazpiko Udalaren eredia jarraikiz.

Aparkalekua abuztuan zabaldu zen bere funtzionamendua aztertu eta ezagutzeko eta, orain, ikasturte berri honen hasieran, Udalak herri-tarrak animatu nahi ditu parkinga erabiltzera.

Eta, era berean, aparkalekuen arazoaren aurrean neurriak hartzeko lanean diharduela ere azaldu du Udalak. •

Aparkalekuko Tarifa

0-60 minutu: Denbora tarte honetan **0,010 euro** ordaindu behar dira **minutuko**

61-180 minutu: Ordu betea igarotzean, **0,020 euro minutuko** da tarifa

181-600 minutu: **0,024 euro minutuko** ordaindu behar dira bigarren ordutik aurrera.

Eguneko gehiengoa 14 euro dira

Ingurumeneko Departamentuak modu eraginkorrean gidatzeko ikastaroa antolatu du

lazio esperientzia errepikatuz, Lasarte-Oriako Udalaren Ingurumeneko, Kontsumoko, Merkataritzako eta Sanitateko Departamentuak, gidatze eraginkorrari buruzko ikastaroa antolatu du.

Irailaren bukaeran egiteko den Mugikortasun Iraunkorren Astearen barruan kokatzen den egitasmoa dugu. Hain zuzen ere, irailaren 22an eskainiko da ikastaroa, 16:00etatik 20:00etara, 4 orduko iraupenarekin, eta dohainezkoa izango da.

Helburua herritarrek modu ekologikoagoan gidatzen ikasi dezaten da. Horretarako erregai gutxiago nola kontsumitu, erosoago nola gidatu eta errepideko arriskuak nola gutxitu daitezkeen azalduko dute ikastaroan.

Ikastaroa

Lehenik ordubeteko klase praktikoa egingo da. Ikasle

bakoitzak ibilbide bat egingo du, eta gidatzeko era, abiadura eta kontsumoa aztertuko zaizkio bidean.

Ondoren, gidatze efizientearen gaineko ezagutza teorikoa jasoko dute bi ordutan.

Eta azkenik, hasierako zirkuitu bera egingo dute berriro ere. Ordubetez ikasitakoak praktikan jarri eta bi ibilbide-tan izandako kontsumoak eta batez besteko abiadura konparatuko dira.

Izena ematea

Ikastaroan parte hartu nahi dutenek Ingurumeneko, Kontsumoko, Merkataritzako eta Sanitateko Departamentuarekin jarri behar dira harremanetan hurrengo telefono zenbakira deituz, 943 37 60 55.

Plazen kopurua mugatua da eta horregatik erreserba izena emandako hurrenkeran egingo da. •



Modu ekologikoan eta erosoan gidatzeko ikastaroa antolatu du Udalak.

ZAHARREN OMENALDIA

Bazkarirako gonbidapenak eskuragarri

Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailak urriaren 4ean antolatu duen zaharren omenaldi eguneko bazkariko txartelak eskuratzeko epea dagoeneko ireki da.

Bazkarira joan nahi duenak 1943an edo lehenago jaioa eta Lasarte-Orian errodutua izan behar du. Gonbidapena jasotzeko NAN aurkeztu behar da.

Era berean, 1943an edo lehenago jaiotakoak ez izan arren, aipatutako baldintzak betetzen dituztenen senar-emazteek ere izena eman ahal izango dute.

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara egongo dira txartelak eskuragarri Villa Mirentxun. Alboko atetik sartu behar dira interesatuak eta irailak 11, ostiralera arte eskeratu ahalgo dira gonbitak. •

ORIA AUZOAZ

Urriaren 28an antolatu da Oriatarren bazkaria

Urtero legez Oria auzoko bizilagun eta lagunkideek bazkaria ospatuko dute urriaren 28an.

Txitxardin Beltxa jatetxean izango da eta aurten Brunete eta Oria auzoko praktikan-te izandako Jose Javier San Sebastian omenduko dute.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, bazkarirako txartelak eskuratzeko telefono zenbaki hauetara deitu behar da, 943 363 332 (Marimi) edo 943 363 905 (Marisol), urriaren 10a baino lehen. •

SASOETA-ZUMABURU IKAST.

Gaur eta bihar liburuen banaketa

Ikasturte hasiera gainean dugu eta horregatik, Sasoea-Zumaburu herri ikastetxeko Buruzpe Guraso Elkarteak liburuen banaketa egingo du gaur eta bihar.

Gaur, 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 16:30era egingo da banaketa eta bihar irailaren 8a, asteartea, 11:00etatik 13:00etara.

Guraso Elkarteak jakin arazten du, liburuak jasotzeko beharrezkoa izango dela, liburuen ordaintzaren ordain agiria eta guraso elkarteak kuotaren diru-sartzearen ordain agiria aurkeztea. Azken hau, 20 eurokoa da familiako eta kuxako hurrengo kontu korrontean sartu behar da: 2101 0048 21 0010712784. •

Euskara ikasteko diru-laguntzak eskaintzen ditu Udalak

■ Matrikularen %40 eta 75 arteko diru-laguntzak emango dizkie Lasarte-Oriako herritarrei

Lasarte-Oriako Udalak *Merkea eta ona* kanpaina antolatuta du euskararen ikaskuntza sustatzeko.

Honetarako, Udalak 'Euskara Batzordearen bidez, euskara ikasi edo hobetu nahi duen herritarrei zuzendutako diru-laguntzak jarri ditu abian.

Onuradunak

Bi laguntza ezberdin bereizten dira. Batetik, Lasarte-Orian erroldatutako guztiek eskuratu dezaketena, hau da, matrikularen %40ra arteko diru-laguntza.

Eta bestetik, euskara bere egunerokotasunean erabili behar dutenentzat, hau da, 5 urte edo gutxiago dituen haur baten gurasoek, Lasarte-Oriako udalerrian dagoen establezimendu edo enpresan langileek eta eskola-orduz kanpoko jarduerara batean dabiltzan begiraleek, beti ere, jarduerak sei hilabeteko iraupena baditu eta haurrekin edo

gaztetxoentzat astean 4 orduko harreman zuzena baldin badute.

Honi esker, matrikularen %75 arteko diru-laguntza lortu dezakete onuradun hauek.

Baldintzak eta eskaera

Diru-laguntza horien onuradun izateko baldintza batzuk bete behar dira, Udalarekin inongo zorrik ez izatea, 16 urteak beteak izatea ikastaroa bukatu baino lehen, ikasketa ofizial edo homologatua eskaintzen dituen euskaltegi batean matrikula ordaindua izatea eta ikastaro osoan, gutxienez, %90ko asistentzia izatea.

Eskaera egiteko asmoa duenak, lehenik, HABEK homologatutako euskaltegitako batean izena eman behar du.

Lasarte-Orian bi euskaltegi daude baldintza hori betetzen dituztenak, *Udal Euskaltegia* eta *Munnteri-AEK* euskaltegia.



Munnteri-AEK euskaltegian iraila osoan du zabalik matrikula egiteko epea.

Baina ez du zertan herriko euskaltegia izan behar diru-laguntza eskatzeko.

Halaber, diru-laguntzen eskaera ikastaroa bukatu eta

hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu behar da Udaleko Erregistroan dago-kion agiri guztiekin batera.

Herriko eskaintza

Honela, arestian aipatu bezala, herrian bi euskaltegiaren izena eman daiteke gerora laguntzen onuradun izateko, *Udal Euskaltegia* eta *Munnteri-AEK* euskaltegia.

Eskaintza zabala dute Lasarte-Oriako bi euskaltegiek. Besteak beste, euskalduntze eta alfabetatze maila guztiak, mintza praktika egiteko aukera, auto-ikaskuntza, hizkuntza eskakizunak eta HABEren 1,2 eta 3 maila azterketak gaiditzeko ikastaroak, baita euskara erabiltzeko eskolaz kanpoko hainbat jarduerara ere.

Izena ematea

Eta euskara ikasteko eta laguntza eskatzeko asmoa dutenek, orain dute pauso hori emateko aukera. Izan ere, euskaltegiaren matrikula-

tzeko epea ireki baitzen hilaren hasieran.

Udal Euskaltegian izena emateko Bekokale bide 1 zenbakira, hau da, Osasun Zentro berriko eraikineko hirugarren solairura hurbildu behar dira interesatuak 08:30etatik 19:15etara, irailaren 20a baino lehen.

Era berean, informazioa nahi dutenek 943 361 621 telefono zenbakian edo euskaltegia@lasarte-oria.org helbidean izango dute aukera.

Munnteri-AEK euskaltegian, berriz, hilaren bukaera arte eman daiteke izena.

Honetan, hiru modu daude matrikula egin edo informazioa eskuratzeko, batetik euskaltegiara Geltoki kalea 17 zenbakira, goizez 11:00etatik 13:00etara edo arratsaldez 18:00tik 20:00etara hurbiltzea, 943 372 863 telefonora deitzea edo lasarte@aek.org posta elektronikora idaztea.

Anima zaitzete euskara ikastera! •



Udal Euskaltegian irailaren 20ra arte du irekita matrikulaz egiteko epea.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legeko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluak eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Asteazkena, 16

Hitzaldia

SEME-ALABEK ZERGATIK ESATEN DIGUTEN GEZURRA hitzaldia eskainiko du Helena San Pedrok, *Nola hezi gure seme-alabak* hitzaldi zikloaren barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.

Ostirala, 18

Kontzertua

NEVERMIND hirukotea Hasier Oleagak (bateria), Hasier Luzuriagak (kontrabaxua) eta Jorge Abadiasek (kitarra) osatzen dute. Hirukote honen eskutik *Nirvana* taldearen jazz bertsoak entzun ahal izango dira. Jalgi kafe-antzo- kian, 23:00etan, **EUSKARAZ**.



**Itsasoari begira
Jalgin**

ITSASOARI BEGIRA da Goizane Mendizabalen argazki erakusketaren izenburua. Bertan itsasoaren inguruko argazki bilduma ederra ikus daiteke.

**IRAILEAN ZEHAR
JALGI KAFE-ANTZOKIAN**

Larunbata, 26

Jaialdia

LASARTE-ORIAKO VI. AKORDEOI JAIALDIA. Zero-Sette akordeoi orkestrak antolatzen duen jaialdiko protagonista berriz ere Nathalie Boucheix izango da (2007an ere etorri zen) eta oraingoan bere taldearekin etorriko da. Hauetaz gain Zero Sette orkestra bera eta Xabier Iglesias akordeoijolea ere egongo dira. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:30ean.



Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara
eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Dagokionari Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak

Marrazki eta margo ikastaroa

Lasarte-Oria Bizilagunen elkarteak gaztetxo eta helduentzat antolatzen dituen margo eta marrazki ikastarotako izen-emateko epea zabaldu du. Beraz, interesa duzuenok gaur, bihar eta irailaren 9ean, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara, Iñigo de Loyola 12. zenbakian behean duten egoitzan.

Galdutako arropa

Udako Txokoetan eta Kanpaldietan galdutako arropa jasotzeko aukera izango da irailaren 18ra bitartean Ttakuneko bulegoan, Geltoki kalea 4. zenbakian.

DYako Sorosle Ikastaroa

Irailaren 16tik urriaren 6ra arte, 19:00etatik 21:00etara, astelehenetik ostiralera, DYako sorosle ikastaroa izango da Landaberri-Garai-koetxea ikastolan (Atsoba- kar,3). Unibertsitaterako 2 kreditu eskeintzen ditu. Informazioa eta aurreinskripzioa 943-464622 telefonoan.

Emakumearen Zentro Zibikoa

2009-2010 ikasturteko lehenengo hiruhilabeteko ikastaroetan izena emateko epea ireki du Emakumearen Zentro Zibikoak. Egoitzan bertan egin behar da inskripzioa goizeko 9:30etatik 13:30ak arte eta arratsaldeko 15:00etatik 20:00ak arte. Jardueretan matrikulatzeko azken eguna irailaren 11a, ostirala, da.

Alboka Abesbatza

Alboka Abesbatzak jakin arazten du, irailaren 10ean, osteguna, emango diela hasiera entseguei. Era berean, abesteko interesa duen orori Zumaburuko Arantzazuko Amaren eliza azpiko gelara, astelehen edo ostegunetan 20:00etatik 21:00etara, hurbiltzeko gonbita egiten die.

Errauskailurik ez!

Errauskailuaren aurkako plataformak irailaren 13an estropaden ohorezko txandaren orduan Donostiako Kon-

txako hondartzan manifestazioa egitera deitzen du.

Amalur eskolak hasi du ikasturtea

Irailaren 2an hasi zuten ikasturtea. Amalur eskolan trikiti-xa, txistua, panderoa eta bateria irakasten dute. Tresnak ikasiz, musika bizi eta doinu alaienez gozatu! Arratsaldeko 17:30etik 20:00ak arte. Izena emateko deitu telefono hauetara 943 364138 eta 616 447 729 edo eskolatik pasa zaitezket.

Kiroldegiko neguko ordutegia

Irailatik aurrera herriko kirol guneen ordutegia honako hau izango da. Kiroldegia, astelehenetik ostiralera, 7:00etatik 22:30etara egongo da irekia, larunbatetan 9:00etatik 20:00etara eta igandeeetan, 9:00etatik 13:00etara; igerilekua, berriz, astean zehar 7:00tik 12:30etara eta 14:00tik 21:30etara, larunbatetan 9:00tik 13:00etara eta 16:00tik 20:00etara, igan-

deetan 9:00tik 13:00etara eta Michelingo kirol gunea, astelehenetik ostiralera, 15:00tik 22:00etara irekiko da, larunbatetan 9:00tik 20:00etara eta igandeeetan 9:00tik 13:00etara.

Ostadarreko Futbol Eskola

Ostadar K.F.k jakin arazten du, Futbol Eskolan izena eman duten jokalariek elkarreko bulegora, Geltoki kalea 25. zenbakira, gerturatu behar direla dokumentazioaren bila.

Argi indarraren horniketaren etetea

Irailaren 8an, asteartean, 12:30ean hasi eta 13:30ak bitartean, Udal Kiroldegia funtzionamenduan eragina izango duen argi indarraren horniketaren mozketaren orokorra izango da.

Igeriketako ikasturtea abian

Buruntzaldea I.K.T.k ireki dugu jadanik 2009-2010 ikasturteko matrikulazioa. Izena emateko jo udal kirol-

degira 18:00etatik 21:00ak bitarte edo deitu Ruben Villalon entrenatzaileari (696 506673). Adinaren arabera entrenamendu egunak eta ordutegian desberdinak izango dira: 96koak egunero 19:00etatik 21:15era; 97koak, astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan 19:30etik 21:15era; 98-99an jaiok, astelehen, asteazken eta ostiraletan 18:00etatik 19:30era; 2000koak astelehen, asteazken eta ostiraletan 18:30etik 19:30era; 2001ekoak astearte eta ostegunetan 18:45etik 19:30era eta 2002an jaiok astearte eta ostegunetan 18:00etatik 18:45ak arte. Animatu eta etorri gurekin igeri egitera.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behea

Atzera kontua Saharako haurrentzat

■ Bi hilabete igaro dituzte Lasarte-Orian, baina etxera bueltatzeko gogoak dauzkatela adierazi ziguten guztiek lehengo ostiraleko solasaldian

NEREA EIZAGIRRE

Dalahi, Dahsalama, Brahim, Fahda, Umu-jutha, Abdel Wadud, eta Ma-alinin dira *Oporrak Bakean* egitasmoari esker Lasarte-Orian egon diren Saharako zazpi haurrak. Ostegunean etxerako buelta egingo dute eta, horregatik, haiekin bildu gara bi hilabete hauek nola igaro dituzten jakiteko

Goizeko txokoak bukatu ostean, Saharako hurrekin hitz egiteko astia izan genuen lehengo ostiralean. Nahiz eta goiz osoa Andoaingo igerilekuan igaro, oraindik indarrez beteta zeuden. Galdera bat egin eta guztiek batera erantzun nahi zuten.

Jarduerak

Udalak eta Sahararen lagunak elkarrekin duten *Oporrak Bakean* egitasmoari esker, uztailean iritsi ziren Lasarte-Oriara zazpi haurrak.

Bi hilabete hauek nola igaro dituzten galdetzean guztiek batera gauza bera erantzun dute "oso ongi" eta ostean bertan oso gustura egon direla ere adierazi digute.

Izan ere, gure artean igaro dituzten egunotan ez dute aspertzeko astirik izan. Jarduera ugari egin dituzte Lasarte-Oria eta inguruko herrialdeetan, Andoaingen batez ere. Txangoak, futbol partidak eta igeri egiten ere ikasi dute.

Ikastaroan "oso ongi pasa genuen" aipatu digute eta ordudunik igeriketan asko ibili direla ere azpimarratu dute, "hondartzan eta igerilekuan."

Hondartzan gainera, olagarroak eta karramarroak ikusi zituztela adierazi digute, baita igelak ere.

Honetaz gain, mutilek lehengo ostegunean Andoaingen futbol partida jokatzeko aukera izan zuten. "Taldea ezberdinetan jarri eta bata besteen aurka aritu ginen," esan digute.

Etxera buelta

Nahiz eta gure artean primeran pasa, etxera bueltatzeko irrikitan daudela ere azpimarratu dute, "familia, anai-arrebak eta lagunak ikusteko gogoia dugu."

Eta atzera kontua hasi da. Hauetako haur batzuentzat gainera azken urtea da eta berriro ere hona etorri ezinak pena handia ematen diela onartu dute, "familiekin harreman ona izan dugu eta pena ematen digu."

Azken egun hauetan bate-tik bestera ibiliko dira. "Tolosan eta Andoaingen egingo diren festetan parte hartuko dugu," aipatu digute,

Ostegunean, berriz, zapiak harrera etxea utziko dute Tindoufeko kanpamentuen egunerokotasunera bueltatzeko. Maleta jostailuz, arropaz eta Lasarte-Orian igaro dituzten egun hauetako oroitzapenez beteta eramango dute noski. •



Igeriketa ikastaroaren ostean, olagarro titulua eman zitzaizaien haurrei. Udaleko arduradunak titulu banaketan egon ziren.



Oporrak Bakean egitasmoa haurrak Lasarte-Orian bizi diren Ailem eta Haouari sahararrekina ateratu zuten argazkia.

ASTELEHENETIK OSTEGUNERA+TUTORETZA+HIZKUNTZA OHITURAK ALDATZEKO PLANGINTZA

ESKAERA BEREZIAK AZTERTUKO DIRA

EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEKO MAILA GUZTIAK

AUTO-IKASKUNTZA (MINTZAMENA TALDEAN)

AZTERKETETARAKO PRESTAKETA

ERABILERA BULTZATZEKO EKINTZAK



Bekokale bidea 1
Tel.: 943 361621
Posta e: euskaltegia@lasarte-oria.org
Web orria: <http://www.lasarte-oria.org/euskaltegi>

**MATRIKULALDIA
IRAILAREN 1ETIK 18RA**

